

Osatzen 2017 Jardunaldietan aurkezteko komunikazioen jarraibideak

1. **Gaia:** Jardunaldietan landuko diren gaiekin zerikusia duten komunikazioak hobesten badira ere (komunitatea, desmedikalizazioa, desgaixotzea, lehen mailako arretaren jasankortasuna ...), osasunari buruzko bestelako gaiak ere onargarriak izan daitezke.
2. **Epea:** Komunikazioak bidaltzeko azken eguna: 2017ko Azaroak 7.
3. **Modalitateak:** Lanak poster gisa aurkeztu behar dira. Lanak originalak izan behar dira, hau da, beste kongresu edo medioetan argitaratu gabeak.
4. **Hizkuntza:** Euskeraz zein Gaztelaniaz eginiko lanak onartuko dira
5. Laburpenaren testua espazio bakarrean mekanografiatua aurkeztu behar da, 10 puntuko letrarekin, gehienez 250 hitz.
6. **Izenburua:** Idatzi komunikazioaren izenburua hasieran, letra larriz, laburdurarik erabili gabe eta gehienez 2 lerrota luzeerarekin.
7. **Egileak:** gehienez 6 egile, 2 abizenak izenaren aurretik ipinita
 - Posterra aurkezteko egileren bat jardunaldietara etortzea derrigorrezkoa da, Posterraren defentza horretarako egokitutako ordutegian egin dezan.
 - Edozein entitate publiko zein pribatuko, finantziario edota babeserak jaso dute Posterrek hala jakinarazi beharko dute espresuki.
8. **Lan-zentroak:** Egile bakoitzari dagokion lan-zentroa idatzi. Lan-zentroa zehazteko, erabili mesedez handitik txikirako hurrenkera: erakunde edo zentroaren izena, gero zerbitzua eta departamentua, eta, azkenik atala. Adibidez: Arabako Dozentzia unitatea, Arabako Ospitale unibertsitarioa, Salburuko osasun zentroa.
9. Edukiaren barne: 1) Sarrera, (helburuak barne dituelarik) 2) Metodoak (diseinua, ikerketa eremua, sujetuak, neurketak edo interbentzioak) 3) Emaitzak, 4) Ondorioak. Atal guztiak idaztea ezinbestekoa da komunikazioa onartua izan dadin.
10. Laburdurarik erabiltzekotan, lehenengoz agertzean termino osoa laburdura jarraian duelarik egin behar da.
11. Izenburuan eta laburpenaren barne, inondik inora ez da agertu behar ikerketaren jatorria
12. HITZ GAKOAK: Medical Subjects Headings -ko <http://decs.bvs.br/E/decswebe.htm> eta <http://www.ncbi.nlm.nih.gov/mesh> -an agertzen diren 3 hitz gako adierazi
13. **Informazio osagarria.** Taulak, irudiak eta antzekoak erabiltzekotan sinpleak eta argiak izan behar dute. Bibliografia ere ahalik laburrena izatea komeni da.
14. Jardunaldien idazkaritza zientifikoak jaso izanaren adierazpena egingo du
15. Goian aipaturiko arauak betetzen ez badira, Posterra arbuatua izan daiteke.
16. Aurkezpenaren originaltasuna kontutan hartuko da, laburpena soilik adierazten duen edota metro batera ezin ikus daitekeen posterra atzera botatzea gerta daitekeelarik
17. Egile-aurkezlea Poster erakusketa saioa baino lehen, gelako moderatzaileari bere burua aurkeztu beharko zaio.
18. Moderatzaileak saioaren amaiera dagokion komunikazioaren ziurtagiriak banatuko ditu. Ziurtagiri horiek lortzeko, beharrezkoa da Egile-Aurkezlea komunikazioko egileetarako bat izatea.
19. Panela. Poster edo panelen neurria 90 x 120 cm-koa izango da. Posterra norberak inprimatu beharko du eta Biltzarren lehenengo egunean, lehen orduan, dagokion lekuan eskegi (egunean bertan Biltzarreko arduradunek jakinaraziko dute posterrentzako tokia zein den).
20. **GARRANTZITSUA:** Jardunaldietako Idazkaritza zientifikoari igorri behar zaio:
 1. Goian ezarritako arauak jarraituz, posterraren laburpena **sede@osatzen** posta elektronikora bidali, gailan "Osatzen jardunaldiak 2017 posterrak" jarriz eta ondorengo datuak adieraziz:
 2. Egilea(k) komunikazioa aurkeztuko duen pertsonaren izena eta email-a adieraziz.
 3. Lan zentroa
 4. Izena eta helbidea (gutuneriarentzako)
 5. Posta kodea
 6. Herria

7. Probintzia
8. Telefonoa
9. Fax-a
10. Posta elektronikoa
11. Izenburua